

## «ITXAS-ALDE» BAKIO'KO EUSKAL KULTUR TALDEA

ASIERA GATXA.—Orain direla urte batzuk, kultura-aldetik zegoen utsune bat betetzeko, dantza-talde jator bat sortu zan Bakio'n.

Bere izena «ITXAS-ALDE» zan, guda aldian izan zan batalloi baten oroimenez.

Benetan izen berezia zala gaurko gudari barri batzuentzat.

Talde onen asierak gogorak izan ziran, talde guztienak legez, baiña eskerrak elizearen, eta batez be abadeen, laguntzari aurrera jarraitu eban.

Eliz-azpian sortu zan talde bat zala esan leike.

\* \* \*

ANTZERKIETARA. Baña urteak joan eta urteak etorri, dantza egitea bakarrik naikoa ez zala ikusi eban, dantzak egiteak berak bakarrik ez eban betetzen euskal kulturearen bear-izana.

Orduan zeozer geiagotan Ian egiten asi bear zala asmatu eban.



Arenaza'tar Josu, Labayen'en «Eguen zuri» antzerki lana gertatzen asi zan.

Beste alde batetik Idigoras'tar Jon abade jaunak alako abesbatz egitea asmatu eban.

Apurka-apurka gauzeak itxura bat artzen eban.

\* \* \*

AGERPENEA.—Azkenean aurtengo Jorraitlean 30'an, Bakio'ko batzokiaren zabalkundea zala ta

ITXAS-ALDE'k kalera urten eban Euskal Kultur talde legez.

Aurkezpena egin ondoren jendea poz-pozik geratu zan, antzerki lana zala ta.

Zenbat barre egin be!

Abesbatza, naiz eta gizon gitxi euki, ondo lortua ikusten zan.

Zer esan soiñu jotzaleai buruz?, a bai zala trebetasuna soiñua joten!

Dantzak be ikusten ziran ondo landuak zirela.

\* \* \*

UMEAK ABESLARI. Beste alde batetik be, euki genduan alako abesbatz bat, baiña au ume txikiak osoturik.

Oneik Bakio'ko Ikastolako umeak ziran, euren zuzendaria Uriarte'tar Miren Josebe zala esan bear.

Sakon sartu ziran mutiko onen abestiak jendearen biotzean!

\* \* \*

LAN BARRIAK.—Orain Kultur-taldea aurrea doa. Kultur-arloan egiten dan lana ez cia amaitzen, eta naiz eta lan asko egin sekula ez cia izango naikoa.

Ba dagoz indar eta asmo barriak.

Laster asiko dira antzerki-lan barri bat gertatzen, abesbatza be aurrera doa abesti barriakaz, dantza taldea bardin.

Iker-lana egiteko asmoa be ba dago, eta apur bat Bakio'ko kondairaren barruan sartzeko.

\* \* \*

JENTE BARRIA.—Gaiñera jende berria sartzten dagoan lez, onek beste gauza bat dakar beragaz: Arlo barrietan lan egin leitekela.

Irakasle barrien bear-izana konpontzen da apurka-apurka, ezin leiteke aitzu atzo umeak ziranak gaur gizonak dirala, eta atzo ikasleak ziranak gaur irakasleak. Ezin leiteke aitzu atzo umeak ziranak gaur gizonak dirala, eta atzo ikasleak ziranak gaur irakasleak izan leitekezala, eta izan bear dirala.